

V21 BARRUTIA, BERRIKUNTZA-BARRUTIA VALPARAISOKO ESKUALDEAN, TXILE

Posted on 14/06/2023 by Naider

Enpresak, ekintzailletza, ikasleak eta komunitatea elkarreraginean arituko diren ekosistemak ezarriz hiriak eraldatu izanak adibide nabarmenak irabazi ditu mundu osoko erreferentziazko hiri eta lurraldeetan, baita Latinoamerikan ere, Txileko Viña del Mar hiriko [V21 barrutia](#)rekin.

El Salto de Viña del Mar auzoan dago, [V21 barrutia](#)n, eta 200 hektarea baino gehiago ditu; bertan, enpresak, hezkuntza-erakundeak, zerbitzu publikoak, udal-azpiegiturak eta berdeguneak bizi dira, hala nola Lorategi Botaniko Nazionala.

Valparaisoko eskualdeko enpresaburu eta eragile garrantzitsuen talde batek bultzatutako ekimena da, eta ekonomia eta hiria eraldatzea du helburu, aukerak sortzeko lankidetzaren ingurune bat eraikitzeari esker.

Gainera, lankidetzaren sare bat du, Network CIN V21 izeneko, V21 barrutiko enpresak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, startupak eta beste erakunde batzuk biltzen dituen. Aliantza horrek Open Innovation metodologiaren bidez lan egiten du enpresetan eta gizartean berrikuntza sustatzeko, eta, horrela, eskualdean jardura ekonomiko berria sortzen du.

V21ean, halaber, oinezkoentzako 15 minutuko hiriak izeneko ereduak sustatzen da. Eredu horrek barrutiko pertsonen bizitzeko, lan egiteko, ikasteko eta zerbitzu desberdinetarako sarbidea izateko aukera ematen die, joan-etorri luzeak egin beharrik gabe.

